

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 84/2015 Erabakia, otsailaren 24koa, onartzen duena urtarrilaren 20ko 14/2015 Erabakiaren bidez Aramaioko udalerriko ondasun higiezinaren gaineko zergari loturiko hiri lurzoruaren mugaketaren aldaketa partziala onartzearen ondorioz gehitutako hiru lurzoruaren balorazio irizpideak aplikatzea

Urtarrilaren 20ko 14/2015 Erabakiaren bidez, behin betiko onarpena eman zitzaion ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako hiri lurzoruaren mugaketaren aldaketa partzialari; Aramaioko udalerriri dagokio, eta abenduaren 4ko 598/2013 Foru Aginduaren arabera egin da, zeinak onartu baitzuen baldintza ez funtsezkoen betetzea, hain zuzen ere abuztuaren 3ko 397/2012 Foru Aginduak, Aramaioko udalerriko hiri antolamendurako plan orokorraren espedienteari behin betiko onarpen partziala eman eta eten zuenak, ezarritakoena.

Bestalde, azaroaren 30eko 1036/1999 Erabakiak behin betiko onartu zuen Aramaioko udalerriko ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako lurzoruaren eta hiri eraikinen balioen txostena.

Beraz, orain bidezkoa da, urtarrilaren 20ko 14/2015 Erabakian jasotakoaren ondorioz eragindako lurzatiei aplikatzea indarreko balioztapen txostenean -azaroaren 30eko 1036/1999 Erabakiaren bidez onartu zen- jasotzen diren balioztapen irizpideak.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea azaroaren 30eko 1036/1999 Erabakiaren bidez onartutako Aramaioko udalerriko balioztapen txostenean jasotzen diren zerga zonak aplikatzea Diputatuen Kontseiluaren urtarrilaren 20ko 14/2015 Erabakiaren bidez Aramaioko udalerriko ondasun higiezinaren gaineko zergari loturiko hiri lurzoruaren mugaketaren aldaketa partziala onartzearen ondorioz erantsitako hiri lurzoruari.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da, eta Aramaioko Udalari dagokio haren berri ematea, kasuan kasuko ediktuak jarrita.

Hirugarrena. Erabaki honen ondorioz ematen diren egintzak interesdunei jakinaraziko zaizkie Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 22ko 1080/1992 Foru Dekretuak, hiri ondasunen katastro balioak berraztertzeko eta aldatzeko prozedura arautzen duenak, 17. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Gasteiz, 2015eko otsailaren 24a

Diputatu nagusia

JAVIER DE ANDRES GUERRA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

AITOR URIBESALGO LORENZO

Ogasun zuzendaria

JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO